

Ordizian, bi mila eta zortziko uztailaren hogeita bederatzian, Udaletxe honetako batzar-aretoan bildu zen UDALBATZA PLENOA, OHIKO BILKURAn, honakoak bertaratu zirelarik:

**BERTARATUAK:**

**LEHENDAKARIA:**

Jose Miguel Santamaría Ezeiza

**BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:**

|                            |                          |
|----------------------------|--------------------------|
| Alejandra Iturrioz Unzueta | EAJ-PNV Taldea           |
| Miren Auzmendi Urkiola     | EAJ-PNV Taldea           |
| Jon Txurruka Etxezarreta   | EAJ-PNV Taldea           |
| Iñaki Dubreuil Churruca    | PSE-EE Taldea (PSOE)     |
| Mikel Leunda Semperena     | EB-Berdeak/Aralar taldea |
| Iban Asenjo Garde          | EA Taldea                |
| Belen Maiza Urrestarazu    | EA Taldea                |
| Mónica Marañón Basarte     | PSE-EE Taldea (PSOE)     |

**BERTARATU EZ DIREN ZINEGOTZIAK:**

|                              |                          |
|------------------------------|--------------------------|
| Iñigo Manrique Cía.          | PP Taldea                |
| Jose J.Lopez Fernandez       | PSE-EE Taldea (PSOE)     |
| Maialen Galparsoro Odriozola | EB-Berdeak/Aralar taldea |

**BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA**

Ana Urkizu Kerejeta

**KONTU-HARTZAILEA:**

Jose Luis Aranburu Otegi

**ITZULTZAILEA**



## **INKORPORAZIOAK ETA AUSENTZIAK**

### **AZTERTUTUTAKO GAIAK**

#### **GAI-ORDENENKO AZTERGAIK:**

- 1.- 2008ko ekainaren 26ko bilkurako akta onartu. .... 3. orria
- 2.- Lurrazalaren kontzesio administratiboa GOIDEBARI, Filipineta kalea 1.ean garajeetara iristeko arrapala egiteko. .... 4. orria
- 3.- Alotza Haurtzaindegiko tarifak aldatzea. .... 5. orria
- 4.- Datu pertsonalen fitxategia aldatzea, gutxituak lanean txertatzeko .... 7. orria
- 5.- Aparkamendu mugatuko guneak arautzen dituen Ordenantza aldatzea. .... 8. orria

#### **PRESAZKO BIDETIK AZTERTUTAKO GAIK:**

#### **GORABEHERAK.**

#### **- NORBERAK LEKARKEENA.**

### **ORDUTEGIA**

HASIERA ORDUA: 8,00

AMAIERA ORDUA: 8,40



Lehendakari jaunak hasiera eman dio bilkurari, gai-zerrendako lehen puntuaren berri emanez:

## **1.- 2008ko ekainaren 26ko ohiko bilkurako akta onartzea.**

### Proposamena

2008ko ekainaren 26ko bilkurako aktaren zirriborroa onartzea.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

### Eztabaida

Lehendakari jaunak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

### Maiza anderea

Euskarazko aktan akats hauek daudela esan du.

- 1.- 2.puntuan, "Ezker Batua-Aralar Taldeak aurkeztutako mozioa, Saharako herriarekiko solidaritatea adierazteko" ez dira jasotzen EAren aldeko bi botuak, eta horregatik bozketan aldeko 9 boto izan ziren eta ez 7.
- 2.- 7.puntuan, Ezker Abertzaleak-ek aurkeztutako mozioa, "Demokrazia Zero", proposamenaren aurkako boto guztiak bildu dira (9), baina ez da aipatzen EA kontrako botorik eman duen bezala.
- 3.- 8.puntuan, "Ordiziako Hiri Zaharrear Trafikoa Arautzen Duen Ordenantzaren aldaketa", proposamenaren aldeko boto-kopurua jasotzen da (9), baina ez da aipatzen EA aldeko botorik eman duen bezala.

Idazkariak akats horiek jaso eta zuzenduko ditu.

### Bozketa

Mahaiko eztabaida amaitutzat emanda, eta bertan den publikoari hitz egiteko aukera eman ondoren, Lehendakari jaunak proposamenaren bozketari ekin dio, zehaztutako zuzenketak egin ondoren.

Bozketak, honako emaitzak izan ditu:

Aldeko botoak: 7 (EAJ 2, EA 2, PSE-EE (PSOE) 2, EB-Berdeak/Aralar 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 2. Santamaria jauna eta Iturrioz anderea abstenitu egin dira, bilkura horretara etorri ez zirelako.

Ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat aitortu du Lehendakari jaunak.



Segidan, Lehendakariak gai-zerrendako 2. puntuaren berri eman du.

## **2.- Lurrazalaren kontzesio administratiboa GOIDEBAri, Filipineta kalea 1.ean garajeetara iristeko arrapala egiteko.**

### Proposamena

Udal pilotalekutik Arana eta Filipineta kaleen arteko bidegurutzera dagoen partzela eraikigarrian, hots, Filipineta kalea 1 bezala ezagutzen den eta arau subsidiarioetako AIU 6 ARANA hirigintza-jarduerako eremuko U.E. 6.2. mugapean dagoen orubean, GOIDEBA S.A.k etxebizitzak eta garajeak eraikitzeke duen aurreikuspenaren berri eman da.

Era berean, Asterio Mateos Vicentek, aipatu enpresaren izenean 2008ko martxoaren 5ean aurkeztutako idatziaren berri eman da. Bertan honakoa eskatzen zuen: jabari publikoko bidearen zati bat hartzeko emakida administratiboa esleitzea, 75 urterako, Filipineta 1eko garajeetara iristeko arrapala egiteko.

Udalarentzat interesgarria da aipatu arrapala eraikitzea, etorkizunean bai udal pilotalekuaren orubean bai aldameneko lurzoru publikoetan izan daitezkeen lur-azpiko garajeetara iristeko.

Azaroaren 3ko 33/2003 Legeak, Administrazio Publikoen Ondareari buruzkoak, 93 eta 137.4.e) artikuluetan jasotzen ditu zuzeneko emakida demanialak, "salbuespenezko arrazoiak direla-eta komenigarria ikusten denean emakida egitea, higiezinaren hartzailearen alde".

Toki-Jardunbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.n) artikuluan jasotakoaren arabera, Osoko Bilkurari dagokio 4 urtetik gorako emakidak egitea.

2008ko...ren..ko Obra eta Hirigintza Delegazioaren eta 2008ko uztailaren 22ko Plenorako Gaien Batzordearen aldeko irizpenekin, honako hau onartzeko proposamena egin da.

### AKORDIO PROIEKTUA

- Ordiziako Udalak, 247,69m<sup>2</sup> inguruko azaleraren emakida administratiboa ematea dio GOIDEBA S.A.ri, Arana eta Filipineta kaleen arteko bidegurutzean, Filipineta kalea 1.eko orubearen ekialdean, garajeetara iristekko arrapala eraiki eta hori erabiltzeko, sestra azpitik eransten diren kontratuan eta planoetan hitzartutakoarekin bat.
- Emakidak badu, baldintza bezala, zortasun-ezarpen bat; pilotalekuko orubean edota aldameneko lurzoru publikoetan egin ahal izango diren garaje nagusietara iristeko lur-azpiko pasilloa egitea.



- GOIDEBA S.A.k, hilabeteko epean eman beharko dio emakida Jabekideen Erkidegoari, hori eratzen denetik hasita, eta horiei subrogatuko zaizkie emakidunaren eskubideak eta betebeharrak, haiengan geldituko delarik erantzunkizuna.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

#### Eztabaida

Lehendakariak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira: bat ere ez.

#### Bozketa

Lehendakariak aurkeztutako proposamenaren bozketari ekin dio.

Bozketak, honako emaitzak izan ditu:

Aldeko botoak: 9 (EAJ-PNV 4, PSE-EE (PSOE) 2, EB-Berdeak/Aralar 1, EA 2)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat aitortu du Lehendakariak.



Segidan, Lehendakariak gai-zerrendako 3. puntuaren berri eman du:

### **3.- Alotza Haurtzaindegiko tarifak aldatzea.**

#### Proposamena

2008ko ekainaren 12an, Alotza Haur Eskolako Gurasoen Elkarteko lehendakari Xavier Arizkorretak aurkeztutako idatziaren berri eman da. Aipatu idatzian, zerbitzuaren hileko kuotak 15€ igotzeko eskaera egin zuen, ezarritako adin-tarte bakoitzean, 2005.etik hona ez delako inolako igoerarik izan eta KPlaren arabera garestitu egin direlako urtero zerbitzuen mantentze-lanen kostuak.

2008ko uztailaren 15eko Administrazio Delegazioaren eta 2008ko uztailaren 22ko Plenorako Gaien Batzordearen aldeko irizpenak ikusita, honako hau proposatzea erabaki da:

AKORDIO PROIEKTUA



- Onartu Alotza Haur Eskolako Gurasoen Elkarteak egin proposamena, kontzesio-kontratua arautzen duten Baldintza-agiriko 4. artikulua aldatuta. Hori, gisa honetara erredaktatuko da:

#### 4. ARTIKULUA.- TARIFAK

1. tarifa: 169,24.-€
2. tarifa: 205,30.-€
3. tarifa: 217,32.-€
4. tarifa: 235,35.-€

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

#### Eztabaida

Lehendakariak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

#### Leunda jna.

Ez zaio iruditzen tarifa altuak direnik, baina esan du legegintzaldi guztian adierazten ari dela tarifekiko bere desadostasuna eta, orokorrean, haurtzaindegia funtzionamenduarekiko. Bere abstentzioa arrazoitzeko hiru arrazoiak azaldu ditu.

1.- Gurasoen diru-sarreraren arabera tarte desberdinak. Nahikoa ez dela iruditzen zaio, familiako kide-kopurua erantsi beharko litzaiokeelako bere ustez. Datu hori kontuan ez hartzea bidegabea iruditzen zaio.

2.- 2 urteko gela adin bereko beste haur batzuk bazterten dira, Jakintza edo Urdanetara doazenak, bertako zerbitzuak erabiltzen baitituzte eta horiek ez dira diruz laguntzen.

3.- Haurra joategatik ordaintzen da zerbitzua, bertan zenbat ordu ematen duen kontuan hartu gabe.

Zerbitzu zabalagoa eman zitekeen, haur-kopuru handiagoa hartuz, zerbitzua antolatzen bada.

Maila handiko zerbitzua ematen dela uste du, baina haurtzaindegia Partzuergoan sartzearen aldekoa da, langileen lanpostuak eta baldintzen mantenduz.

#### Maiza andrea

Maiza andreak erantzun dio ez dela posible, Partzuergoa sare publikokoa delako eta langileen kontratazioa Administrazioaren hautapen-arauetara makurtuta dagoelako.

Eusko Jaurlaritzak garai batean egin zituen salbuespenak langileen gaiarekin haurtzaindegi historiko batzuen, hala nola, Beasain, baina Ordiziak ez zuen garai hartan egin.

#### Leunda jauna



Uste du Eusko Jaurlaritzak geroz eta ekarpen txikiagoa egiteko arriskua dagoela, eta Udalak diru gehiago jarri behar izaten duela, modu horretan, urtero zama handiagoa izanik Udalarentzat. Bere garaian Partzuergoan sartzeko erabakia hartu behar zen. Aldi berean galdetu du ea ze ekarpen egiten dion Udalak hartzaindegia.

#### Iturrioz anderea

Udalak ematen dion kopurua 3000 €koa dela erantzun dio.

#### Leunda jauna

Beste batzuetan bezala, udal hartzaindegia, bere garaian, kontsorzioan sartu behar izan zuela esan du.

#### Iturrioz anderea

Hartzaindegiak berak eta Guraso Elkarteak erabaki zutela Partzuergoan ez sartzea esan du, eta hori egin ez zutenek, eta erabaki horrek ekar ditzakeen eta dakartzan ondorioak ikusita, udal ekarpena handitzen joatea, hartzaindegiak berak aurre egin beharreko arazoa izan beharko lukeela.

#### Bozketa

Lehendakariak aurkeztutako proposamenaren bozketari ekin dio.

Bozketak, honako emaitzak izan ditu:

Aldeko botoak: 8 (EAJ 4, PSE-EE (PSOE) 2, EA 2)

Kontrako botoak: 0

Abstentzia: 1 (EB-Berdeak/Aralar)

Ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat aitortu du Lehendakariak.



Segidan, Lehendakariak gai-zerrendako 4. puntuaren berri eman du:

#### **4.- Datu pertsonalen fitxategia aldatzea, gutxituak lanean txertatzeko**

##### Proposamena

Gizarte Ongizate arloak, 155/2001, uztailaren 30eko Dekretuak udalei minusbaliotasuna duten pertsonak laneratzeko arloan ematen dizkien eskumenak erabiliz, egokia ikusten du fitxategi bat edukitzea



minusbaliotasun aitortua duten udalerriko pertsonen datu pertsonalekin, hauek horretarako baimena ematen badute, pertsona horiek kontratatzeke interesa duten enpresei uzteko.

Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legeak dionez, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek, fitxategiak sortu, aldatu edo ezabatzea xedapen orokor bidez egin beharko dute, indarrean dagoen legeak eskatzen dituen aipamen guztiak eginez, eta hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian edo Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu, bere funtzioak edo eskumenak egikaritzen dituen lurralde eremuaren arabera.

Ondorioz, 2008ko ekainaren 25eko Gizarte Ongizate Delegazioaren irizpenarekin eta 2008ko uztailaren 22ko Plenorako Gaien Batzordearen irizpenarekin, proposatzen da

#### AKORDIO PROIEKTUA

- 1.- I. Eranskineko fitxategia sortu, minusbaliotasun aitortua duten udalerriko pertsonen datu pertsonalak dituen, pertsona horiek kontratatu nahi dituzten enpresei uzteko.
- 2.- Akordio honen edukia oso-osorik Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu.
- 3.- Akordio honen edukia Datuak Babesteko Euskal Bulegoari jakinarazi.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

#### Eztabaida

Lehendakariak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira: ez dira izan.

#### Bozketa

Mahaiko eztabaida amaitutzat emanda, eta bertan den publikoari hitz egiteko aukera eman ondoren, Lehendakariak proposamenaren bozketari ekin dio.

Bozketak, honako emaitzak izan ditu:

Aldeko botoak: 9 (EAJ 4, PSE-EE (PSOE) 2, EA 2, EB-Berdeak/Aralar 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat aitortu du Lehendakariak.





Jarraian, Lehendakariak gai-zerrendako 5. puntuaren berri eman du:

## **5.- Aparkamendu mugatuko guneak arautzen dituen Ordenantza aldatzea.**

### Proposamena

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeko 25.2b) artikulua arabera, udalerririk eskumena du herriko kaleetan ibilgailu eta pertsonen trafikoa ordenatzeko.

Hori betetzeko, 2005eko urtarrileko Osoko Bilkurak onartu zuen Aparkaldi mugatu duten zonetan aparkamendua arautzeko ordenantza, Ordiziako udalerrian babes bereziko erdigunea ezartzen duelarik, non ibilgailuek gehienez ordu-erdiz aparkatu ahal duten.

Udaltzaingoak beharrezkoa ikusten du babes bereziko erdigune hori zabaltzea, bertan honako kale hauek sartuz: Joan Amezketak (kale osoa), Euskalerrria kalea (2 plaza) eta Ordizia kalea (4 plaza).

Orain Udalak Ordenantza hori aldatu beharra ikusten du, Alde Zaharrerako sarrera baimenei dagokienean eta baita lege-hauste arinei jartzen zaien isunari dagokionean ere (azken hau Hiritar izaerako herri-bideen erabilera eta horietako trafikoa, zirkulazioa eta segurtasuna arautuko dituen udal-ordenantzari egokitzeko).

Toki Araubidearen gaietan indarrean dauden arauen Testu Bateginaren 56. artikulua arabera, ordenantzak aldatzeko, onartzeko jarraitu behar den prozedura bera jarraitu behar da, hots:

- a) Osoko Bilkuraren hasierako onespina.
- b) Ordenantza jendaurrean jarri eta interesatuta daudenei erreklamazio eta iradokizunak aurkezteko gutxienez 30 eguneko tartea eman.
- c) Epe horren barruan aurkeztutako erreklamazio eta iradokizunak ebatzi eta Osoko Bilkuran Ordenantza behin-betiko onetsi.

Erreklamazio eta iradokizunik aurkeztuko ez balitz, ordura arte behin-behinekoa izan den onespina behin-betiko bihurtuko da

Hori horrela, Zerbitzuetako Delegazioak 2008ko ekainaren 18ko irizpenarekin eta 2008ko uztailaren 22ko Plenorako Gaien Batzordearen irizpenarekin, proposatzen da:

### AKORDIO PROIEKTUA

1.- Behin behingoz onartu Ordiziako aparkaldi mugatu duten zonetan aparkamendua arautzeko ordenantzan aldaketa hauek egitea:

3. artikuluko 3. paragrafoan honako hau gehitu:

- Joan Amezketak (kale osoa)
- Euskalerrria kalea (2 plaza)
- Ordizia kalea (4 plaza)



2.- Ordenantza hori jendurrean jarri 30 egunez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta iragarki-taulan, eta interesatuta daudenek aurkeztutako erreklamazio eta iradokizunei tartea eman, horiek guztiak Korporazioak ebatziko dituelarik. Erreklamaziorik ez balego, Ordenantza behin betiko onartutzat joko litzateke, beste erabakiren beharrik gabe.



Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

### Eztabaida

Lehendakariak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

#### Asenjo jna.

Proposamenaren atzean zera dagoela esan du, Udaltzaingoak mota horretako aparkaleku gehiago behar direla antzeman duela.

Beraz, proposamena laudatu dut.

Herri Zaharreko erabiltzaile guztiek irabazi behar dutela uste du.

#### Leunda jna.

Euskarazko akordio proposamenean zerikusirik ez duen atal bat dagoela esan du, eta, beraz, kendu egin beharko litzatekeela. Zuzendu egingo da.

### Bozketa

Mahaiko eztabaida amaitutzat emanda, eta bertan den publikoari hitz egiteko aukera eman ondoren, Lehendakariak proposamenaren bozketari ekin dio.

Bozketak, honako emaitzak izan ditu:

Aldeko botoak: 9 (EAJ 4, PSE-EE (PSOE) 2, EA 2, EB/Berdeak/Aralar 1).

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

**Ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat aitortu du Lehendakariak.**



Segidan, Lehendakariak gai-zerrendako hurrengo puntuaren berri eman du:

## **6.- Galde-eskeak.**

Ez da izan



Aztergai gehiago ez dagoenez, Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, eta honako akta jaso da; hori, nik, behin behineko Idazkariak egiaztatzen dut.

